



PRESTATZEA ETA EMATEA: OBULUTEGIA ESTIMULATZEKO TRATAMENDUA OVALEAP® BIDEZ

INJEKZIOA BAINO LEHEN

Obulu-estimulazioa obulazio anizkoitza medikazio hormonalen bidez eragitean datza. Prozesu hori lagundutako ugalketa lortzeko egiten da, intseminazio artifizialaren bidez edo in vitro. Jarraian, tratamendua behar bezala emateko egin beharreko urratsak azalduko ditugu.

Gogoan izan injekzioa hozkailuan eduki behar duzula eman baino 10 minutu lehenago, giro-tenperaturara iristeko.



Boligrafoa laguntza bidezko ugalketa-kontsultan emango dizute, eta kartutxoa, medikazioa eta orratza duena, Farmazia Zerbitzuan emango dizkizute, ikuskaritza medikoaren bidez agindu eta baliozkotu ondoren.

GARRANTZITSUA: garbi itzazu kontu handiz eskuak eta prestatu gainazal garbi batean erabiliko duzun eta eskura duzun materiala. Egiaztatu agindutako medikazioa dela.

OVALEAP PEN NOLA PRESTATU

Ovaleap® luma kolore berdeko kutxatila handi batean dator. Medikazioa duen kartutxoa Ovaleap Pen®-ekin akoplatzeko, jarraibide hauek bete behar dira:

1. Luma desestali eta goiko aldea askatu.
2. Kartutxoa sartu, goma grisa goiko aldean geratzeko moduan, eta luma berriro kiribildu.
3. Larruazalpeko orratza jarri eta babesak kendu.
4. Dosia hautatu, lumaren goiko aldeko gurpila biratuta.
5. Ez injektatu sendagaia larruazala gorrituta, makatuta edo gogortuta dagoen eremu batean.
6. Garbitu injekzio-eremua alkohola edo antzekoa erabiliz.
7. Heldu lumari esku batean eta, bestearekin, azal tolesdura zabal bat egin erpuruaren eta hatz erakuslearen artean, eta sartu orratza bertikalki (90°-ko angelua) eta luzera osoan larruazalaren tolesturan zehar.





8. Hautatutako dosia lumaren leihoan agertzen denean, deskarga egiteko beherantz bultzatzen da lumaren tarteko pieza berdea (injekzio-botoia).
9. Irristatu alboko botoi berdea eta eduki sakatuta segundo batzuetan, errotoea geldirik geratu arte.
10. Kendu luma eta bota orratza.
11. Gorde luma bere ontzian eta kontserbatu 2-25° artean, ahal dela hozkailuan, hurrengo dosia hartu arte.

